



#EsFeminismo
#FeminismoSindical

Feminismo sindikala



emakumeon *bizitza* hobetzeko

CCOO sindikatu feminista da eta bere konpromiso irmoa agertzen du emakume langileen lan diskriminazioaren aurkako borrokan, horren era guztietan baita emakumeon bizi baldintzak hobetuko dituzten proposamenak negoziatzen jarraitzekoa.

Feminismoa gizarte eraldaketaren eragile nagusia izatean ari da, eta hori dela eta eman da gizarteko alderdi erreakzionarioenen gaitzespena, baina mugimenduaren atzean 40 urte baino gehiagoko emakumeon borroka historikoa dago. Etengabeko borroka, konpromisoz beteak eta arriskutsuak baina diskriminazioekin bukatzen joateak ematen duen pozarekin, bizi baldintza duinen alde eginez, n sormen, sororitate eta alaitasunez.

Eremu guztietan eman dira borroka hauek, eta lan esparrua ez da txikia izan. Emakumeek independentzia ekonomikoa beharrezkoa dugu autonomoak izan eta beste inoren menpe ez egoteko. Soldatapeko lana izan da autonomia iturri horietako bat eta enplegurako sarbidea, sustapen profesionala, erantzunkidetasuna, soldata berdintasuna edo indarkeriaren amaiera borroka helburu sindikalak dira. Horregatik CCOOtik feminismo sindikala aldarrikatzen dugu, gainontzeko sindikalismoekin batera oraindik ere badirauren matxismoari aurre egiteko balio baitu, feminismoa esparru guztietara zabaldu behar dugu.

Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren igoera Feminismoa da

Martxoaren 8an berezkoa dugun feminismo sindikala eta mugimendu feministaren barruan lan eskubideen aldeko borroka aldarrikatzen ditugu, eta nahiz eta bat egiten dugun aldarrikapen feministarako egun hau ospatu eta disfrutatzearekin, **egunero gaurkotzen dugu feminismoa lantokietan geure aktibo sindikalaren bitartez**, eskubideak ez direlako lantokietako ate aurrean geratzen. Egunero salatzen dugu laneko diskriminazioa eta lan zein bizi baldintzak hobetzeko proposamenak eskaintzen ditugu Gizarte Elkarriketaren bitartez, esaterako Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarena. Hau, 2018an hilean 736 euro izate-tik 1.134 euro gordinera igoa da 2024 urtean, 14 pagetan. Igoera %46 baino gehiagokoa izan da. Igoera honek mesede handiagoa egiten digu emakumeei, geu garelako lan eta soldata baldintza okerrenak ditugunak.

Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren igoera Feminismoa da

Martxoaren 8an berezkoa dugun feminismo sindikala eta mugimendu feministaren barruan lan eskubideen aldeko borroka aldarrikatzen ditugu, eta nahiz eta bat egiten dugun aldarrikapen feministarako egun hau ospatu eta disfrutatzearekin, egunero egunero gaurkotzen dugu feminismoa lantokietan geure aktibo sindikalaren bitartez, eskubideak ez direlako lantokietako ate aurrean geratzen. Egunero salatzen dugu laneko diskriminazioa eta lan zein bizi baldintzak hobetzeko proposamenak eskaintzen ditugu Gizarte Elkarriketaren bitartez, esaterako Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarena. Hau, 2018an hilean 736 euro izate-tik 1.134 euro gordinera igoa da 2024 urtean, 14 pagetan. Igoera %46 baino gehiagokoa izan da. Igoera honek mesede handiagoa egiten digu emakumeei, geu garelako lan eta soldata baldintza okerrenak ditugunak.

Soldata arrakala murriztea Feminismoa da

Gaur egungo soldata arrakala %18,6koa da eta nahiz eta azken 15 urteetako txikiena den emakume eta gizonen arteko soldata ezberdintasuna murrizten jarraitu behar dugu. CCOOtik gutxieneko soldata ezarriko dugu hitzarmenetan, emakumeentzat izan ohi diren trebetasunetarako soldata osagarri falta zalantzan jarritz, partzialtasuna murriztuz eta lanbide arteko gutxieneko soldata handituz.

Lan erreforma Feminismoa da

Lan erreformak kontratazio mugagabea hobetu du baita denborazkotatasuna murriztu eta horrek egonkortasun handiagoa ekarri du emakumeon enpleguan. Azken 12 hilabeteetan lanik gabe zegoen emakume kopurua 23.400an murriztu da. Hau da, emakumeentzat izan diren 21.000 lan kontratu baino gehiago egon dira. Biztanleria aktiboaren inkestak agertu du denborazkotatasuna

murriztu egin dela %13,24 arte eta 783.000 enplegu sortu direla. Inoiz baino gehiago dira lanean ari diren emakumeak. Lana duten pertsonak 21.246.900 dira eta horietatik %46,7 emakumeak, hala ere denbora partzialen kontratuen % 75 emakumeek dituzte. CCOOn partzialtasuna murriztearen alde egiten dugu baita horren lan baldintzak hobetzearen alde.

Pentsioen erreforma *Feminismoa da*

Lanbide arteko gutxieneko soldata igotzeak pentsioetan dagoen arrakala ere murriztea ahalbidetu du. Erretiro pentsioen kasuan arrakala %31,91koa da nahiz eta baldintza hobekak negoziatu diren kotizazio hutsuneak aintzat hartzeko. senitartekoak eta adingabeak zaintzeko lanaldi murrizketa edo eszedentzia kasuak 3 urte arte %100 kotizatuztat jotzen dira eta pentsioetan arrakala murrizteko osagarria handitu ere. Hala ere, oraindik ere erretiro pentsioetan %31,4ko arrakala dago. Gure konpromiso sindikala ezinbestekoa da pentsio arrakalarekin bukatzeko.

Berdintasun planak negoziatzea *Feminismoa da*

Emakume langileen bizitza, lanaldia arrazionalizatzen duten eta erantzunkidetasunean laguntzen duten neurriak ezartzen dituzten hitzarmen kolektiboak negoziatzen ere hobetzen da. Aurten ia 5000 berdintasun plan erregistratu dira ERGCOn eta gaur egun 10.729 dira aktibo dauden berdintasun planak dagoeneko. Hala ere berdintasun plana izan beharko luketen 31.400 enprestatik %66k ez du egin. CCOOtik negoziazio falta salatzen jarraituko dugu, negoziazio mahaiaren deialdia eskatuz eta horietan hartzen diren neurrien jarraipena eginez.

Sexu jazarpenaren aurkako borroka Feminismoa da

Nahiz eta enpresa guztientzat sexu jazarpena eta sexu arrazoiengatiko jazarpena kudeatzeko eta honen prebentziorako protokoloak egotea derrigorrezkoa den, protokoloak bakarrik berdintasun plana duten enpresek dituzte, protokoloak planaren parte baitira. Enpresa gehienek, batez ere PYME eta PYME txikiek ez dute sexu jazarpena edo sexu arrazoiengatiko jazarpenaren aurkako protokolorik izaten, eta badaude emakume langileak, etxeko langileak edo etxez etxekoak esaterako, sexu jazarpena jasaten dutenak lan egiten duten etxebizitzetan. Profesionalak zein sindikalistak eta biktimak aholkatzeko lanean jarraituko dugu Sexu Jazarpenaren eta Sexu Arrazoiengatiko Jazarpenaren Behatokian.

Baina feminismo baita ere da, lanerako sarbidean genero estereotipoak haustea, galdera sexistak ekiditea, lanaldiaren murrizketaren penalizazioarekin bukatzea, hileroko ezgaitzaleetarako baimenak lortzea, lanaldiaren malgutasuna lortzea, homofobiaren aurkako sentsibilizazioa, lanaldia , ordainsari-erregistroak egitea soldata osagarrien joerak ikusteko, lanpostuen balorazioa historikoki eskatutako baina ez aitortuta eta ez ordainduta dauden gaitasun eta trebetasun femeninoen arabera, emakumeon gorputz eta errealitatearekin bat datorren lan arriskuen prebentzioa ezartzea

Hau guztia eta askoz ere gehiago Feminismoa da. Afiliazioa mugimendu feministaren deialdi ezberdinekin bat egitera animatzen dugu. Gure konpromisoa berresten dugu Feminismo Sindikalarekin , emakumeak autonomoago, zoriontsuago eta askeago egingo baititu.

